## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 2317

AGINDUA, 2008ko martxoaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Euskararen Gaitasun Agirirako (EGA) Azterketa Batzorde Ofizialaren kide bat izendatzen duena.

1982ko irailaren 20ko Aginduak Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) arautzen du. Gaitasun-agirirako Azterketa Batzorde Ofizialeko kideak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak izendatuko dituela adierazten da bertako 36. artikuluan.

Horren ondorioz, honakoa

EBATZI DUT:

*1. artikulua.*– Ondoko jauna Euskararen Gaitasun Agirirako (EGA) Azterketa Batzorde Ofizialeko kide izendatzea:

Lazkano Agirreolea, Jose Luis

*2. artikulua.*– Izendapen honek 2009ko abenduaren 31ra arte balio izango du.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko martxoaren 10a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 2317

ORDEN de 10 de marzo de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se nombran un nuevo miembro de la Comisión Oficial de Exámenes para el Certificado de Aptitud de Conocimiento del Euskera (EGA).

La Orden de 20 de septiembre de 1982 regula el Certificado de Aptitud de Conocimiento del Euskera (EGA). En el artículo 36 de la misma se dispone que el Departamento de Educación, Universidades e Investigación nombrará los miembros de la Comisión Oficial de exámenes para dicho Certificado de Aptitud.

En su virtud,

RESUELVO:

*Artículo 1.*– Nombrar a la siguiente persona como miembro de la Comisión de Exámenes para el Certificado de Aptitud de Conocimiento del Euskera (EGA):

Lazkano Agirreolea, Jose Luis

*Artículo 2.*– Este nombramiento tendrá validez hasta el 31 de diciembre del año 2009.

En Vitoria-Gasteiz, a 10 de marzo de 2008.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

## KULTURA SAILA

### 2318

AGINDUA, 2008ko martxoaren 18koa, Kultura sailburuarena, nazioarteko kirol gertakariak eta kirola zabaltzeko jarduerak burutzeko diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Agindu honen bitartez, Kultura Sailak diru-laguntzak emango ditu nazioarteko kirol gertakariak antolatzeko, zenbait kirol entitatek Estatutik kanpo egiten diren nazioarteko kirol gertakarietan parte hartzeko eta kirola zabaltzeko jarduerak burutzeko.

Deialdi honek bi helburu nagusi ditu: lehenengo eta behin, nazioarteko kirol lehiaketak antolatzeko eta ho-

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 2318

ORDEN de 18 de marzo de 2008, de la Consejera de Cultura, por la que se establecen las normas que regulan la concesión de subvenciones para competiciones deportivas de carácter internacional y actividades de divulgación deportiva.

El Departamento de Cultura establece mediante la presente Orden una línea de subvenciones para apoyar la organización de competiciones deportivas de carácter internacional, la participación de determinadas entidades deportivas en competiciones deportivas de carácter internacional que se celebran fuera del Estado y la realización de actividades de divulgación deportiva.

La presente convocatoria se realiza, en primer lugar, por la importancia que tiene para el Gobierno Vasco el

rietan parte hartzeko jarduerak sustatzea, izan ere, Eusko Jaurlaritzarentzat berebiziko garrantzia du horrek, jarduerok oinarrizko elementuak baitira euskal kirolak nazioartean presentzia izan dezan; eta, bigarrenik, euskal kirolarien merezimenduak jendaurrean aitortzea helburu duten jarduerak sustatzea.

Hortaz, beharrezkoa da kirol jarduerek era horretako gertakaritzat hartzeko bete behar dituzten ezaugarriak finkatuko dituzten irizpideak eta betekizunak zehaztea eta diru-laguntzak eskatzeko, izapidetzeko eta emateko arauak finkatzea.

Ondorioz, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Xedea.

1.– Agindu honetan, 2008. urtean hasi edo burututako nazioarteko kirol egitarau zein jardueretarako eta kirola zabaltzeko jarduoeretarako diru-laguntzak emateko modua ezartzen da, artikulu honetan jasotako jarraibideak errespetatuz.

Ildo horretatik, jarduera hauek jaso ahal izango dituzte diru-laguntzak:

a) Nazioarteko kirol jarduerek:

– Nazioarteko kirol lehiaketa ofizialak antolatzea senior kategorian edo absolutuan.

– Estatutik kanpo egiten diren nazioarteko kirol lehiaketa ofizialetan kirol elkarte eta klubek parte hartzen duten jarduerak.

Atal honetako jarduerek goi-mailako kirola sustatzera egon behar dute bideratuta. Ez da diru-laguntzarik emango partaidetzako kirola sustatzeko jarduoeretarako (jolas, aisia eta osasunerako kirola) edo euskal kirol selekzioek parte hartzen duten kirol-lehiaketetarako.

Nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialak antolatzeko kasuan, bakarrik emango da diru-laguntza baldin eta euskal kirol federazioen lizentzia duten kirolarien partehartzea % 10etik gorakoa bada eta Estatutik kanpoko kirolariena % 5etik gorakoa.

b) Kirola zabaltzeko jarduerek:

– Kirolarekin zerikusia duten jardunaldi, mintegi, ikastaro eta biltzarrak antolatzea.

– Euskal kirolarien merezimenduak jendaurrean aitortzeko ekitaldi publikoak antolatzea.

fomento de las actividades dirigidas a la organización y a la participación en competiciones deportivas internacionales como elemento básico para lograr la presencia del deporte vasco en el ámbito internacional, y en segundo lugar, para fomentar el desarrollo de actividades que tienen por objeto el reconocimiento público de los méritos de los deportistas vascos.

Resulta, por tanto, preciso establecer los requisitos y criterios que definan las características que deban cumplir las actividades deportivas para ser consideradas como tales eventos, así como las normas que regulen la solicitud, tramitación y concesión de las referidas subvenciones.

En su virtud:

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Objeto.

1.– La presente Orden establece el régimen de concesión de subvenciones a los programas o actividades deportivas de carácter internacional y actividades de divulgación deportiva que se realicen o inicien en el año 2008, en los términos que este artículo recoge.

En tal sentido podrán ser objeto de subvención:

a) Competiciones deportivas de carácter internacional:

– La organización de competiciones deportivas oficiales de carácter internacional, en categoría senior o absoluta.

– La participación de agrupaciones deportivas y clubes deportivos en competiciones deportivas oficiales de carácter internacional que se celebren fuera del Estado.

Las actividades concernientes a este apartado deberán estar orientadas hacia el fomento del deporte de alto nivel. No serán objeto de subvención aquellos programas cuya orientación esté enfocada básicamente hacia el fomento del deporte de participación (deporte de recreación, deporte de ocio, deporte-salud) ni las competiciones deportivas en las que intervengan las selecciones deportivas vascas.

Los programas para la organización de competiciones deportivas oficiales de carácter internacional sólo podrán ser objeto de subvención cuando el índice de participación de deportistas con licencia expedida por la correspondiente Federación Vasca sea superior al 10% del total de participantes y el índice de deportistas de fuera del Estado sea superior al 5% del total de participantes.

b) Actividades de divulgación deportiva:

– Organización de jornadas, seminarios, cursos y congresos relacionados con el ámbito deportivo.

– Organización de actos públicos que tengan por objeto el reconocimiento público de los méritos de los deportistas vascos.

2.– Diruz lagundutako jarduerak burutzeko, entitate eskatzaileek beren kontura jardun dezakete, edo beste entitate batzuekin lankidetzan edo hitzarmen bat eginez.

3.– 2008an hasten diren gertakarietarako emandako laguntzak ezingo dira erabili ekitaldi horri ez dagozkion jarduerak finantzatzeko.

4.– Diru-laguntza jasotzeko nahitaezko baldintza izango da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzea proposatzen den jarduera edo programaren garapenean eta, zehatzago, publizitateari eta dokumentazioari dagozkion elementu guztietan (posta, kartelak, liburuxkak, esku-programak, megafonia eta abar).

*2. artikulua.*– Aurrekontu baliabideak.

1.– Deialdia agindu honen 7. artikuluan ezarritako prozeduraren bidez ebatziko da eta guztira 1.000.000 (milioi bat) euro erabiliko dira.

2.– Zenbateko guztira, modalitate eta atalkako zenbatekoen arabera, honela banatuko da:

a) Nazioarteko kirol lehiaketetarako diru-laguntzen lerroa: 940.000 (bederatziehun eta berrogei mila) euro.

b) Kirola zabaltzeko jarduaretarako diru-laguntzen lerroa: 60.000 (hirurogei mila) euro.

3.– Modalitate bateko eskabideei buruzko ebazpena eman ondoren dagokion zuzkidura guztia agortzen ez bada, soberakina beste modalitate bateko zuzkidura handitzeko erabili ahal izango da, betiere modalitate horretako diru-laguntzak ebatzita ez badaude.

4.– Eskatutako diru-laguntzen zenbateko osoa kontuan hartuta, artikulu honetan diru-laguntza hauetarako ezarritako zenbatekoak aldatu ahal izango da, baldin eta Kultura Sailean beste programa batzuk gauzatu ondoren aurrekontuetako izakinak agortu ez badira. Kopuru hori aldatzea diru-laguntzei buruzko ebazpena hartu aurretik erabakiko da. Horrelakorik gertatuz gero, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearen ebazpen baten bitartez emango da aditzera.

*3. artikulua.*– Entitate onuradunak.

1.– Honako erakunde hauek eskatu ahal izango dituzte agindu honetan araututako diru-laguntzak:

a) Indarrean dagoen legediari jarraituz eratuta eta Kirol Erakundeen Erroldan izena emanda duten euskal kirol federazioek.

b) Kirol klub eta elkarteek eta kirol-helburuak dituzten merkataritza-sozietateek, baldin eta legez eratuta eta dagokion erroldan izena emanda badaude eta baltzu-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badaukate.

c) Aldiro zein noizean behin kirol modalitate desberdinetako ekintzak antolatzen dituzten erakundeek,

2.– Las actividades que sean objeto de subvención podrán ser desarrolladas por las entidades solicitantes, ya sea directamente o mediante régimen de colaboración o convenio con otras entidades.

3.– Las subvenciones que se concedan para los eventos que se inicien en el año 2008 no podrán destinarse a financiar gastos que no correspondan a dicho ejercicio.

4.– Será requisito indispensable para la obtención de subvenciones la utilización de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca en el desarrollo de la actividad o programa propuestos y en concreto en todo lo concerniente a publicidad y documentación (correspondencia, carteles, folletos, programas, megafonía, etc.).

*Artículo 2.*– Dotación presupuestaria.

1.– La presente convocatoria se resolverá por el procedimiento que se contempla en el artículo 7 de la presente Orden, y a tal fin se destinará un total de 1.000.000,00 (un millón) euros.

2.– El importe global se distribuye, por modalidades e importes, de la siguiente manera:

a) Línea de ayudas a competiciones deportivas de carácter internacional. 940.000,00 (novecientos cuarenta mil) euros.

b) Línea de ayudas para actividades de divulgación deportiva. 60.000,00 euros (sesenta mil) euros.

3.– En el supuesto de que tras resolver las solicitudes presentadas en una determinada modalidad la dotación global asignada a ella no se agote, el excedente podrá incrementar la dotación global de la siguiente siempre que ésta no se encuentre resuelta.

4.– Los importes expresados en este artículo podrán ser modificado, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de las disponibilidades presupuestarias no agotadas que resulten de la ejecución de otros programas de ayudas del Departamento de Cultura y con carácter previo a la resolución de las mismas. De la presente circunstancia se dará publicidad mediante Resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

*Artículo 3.*– Entidades Beneficiarias.

1.– Podrán solicitar las subvenciones que se regulan en la presente Orden las siguientes entidades:

a) Las Federaciones Deportivas Vascas constituidas con arreglo a la legislación vigente e inscritas en el Registro de Entidades Deportivas.

b) Los clubes deportivos, las agrupaciones deportivas y las sociedades mercantiles que tengan objeto deportivo, legalmente constituidas e inscritas en el registro correspondiente y que tengan su domicilio social en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Entidades que periódica o esporádicamente organicen actividades concernientes a modalidades depor-

baldin eta baltzu-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan badaukate.

d) Euskal Autonomia Erkidegoko toki erakundeek.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak edo bere erakunde autonomiadunek entitate onuradunari ezaugarri bereko beste laguntza edo diru-laguntzaren batzuk eman badizkiote eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, diru-laguntzaren esleipena eta ordainketa ezingo da egin egoera hori konpondu arte.

3.– Ezin izango dira aurkeztu, kasuan kasuko zigorrak ezarritako epean, laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penala jasotako pertsona fisikoak edo juridikoak, eta ezta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenak ere.

4.– Laguntza-deialdei honetara ezin izango dira aurkeztu diru-laguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea galarazten duen debekuren baten edo administrazio-zehapen edota zehapen penalen baten menpe dauden eskatzaileak, ez eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea dela bide debeku horrekin zigortuak ere.

*4. artikulua.*– Eskabideak.

1.– Agindu honetan ezarritako diru-laguntzak jasotzeko eskabideak Kultura Saileko Kultura, Gazteria eta Kirol Sailburuordetzari zuzenduko zaizkio eta Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzan edo kasuan kasuko Kulturako lurralde zerbitzuetan aurkeztuko dira, onuraduna zein lurralde historikotan kokatuta dagoen kontuan izanik. Eskariak zuzenean aurkez daitezke, edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean ezarritako bideetatik edozein erabiliz. Ondoko dokumentuak erantsiko zaizkie eskabideei.

a) Kirol Zuzendaritzak berak zuzenean zein Kulturako Lurralde zerbitzuen bitartez emandako eskabide orria (I. eranskina), eskabidea egiten duen pertsona fisikoak entitate onuradunaren izenean jarduteko baimena duela egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu behar delarik.

b) Jarduerari buruzko memoria.

Nazioarteko kirol lehiaketen inguruko jarduerak finantzatzeko eskatzen diren diru-laguntzen kasuan, azalpen memorian alderdi hauek jaso behar dira:

– Kirol lehiaketaren maila edo kategoria.

– Parte-hartzaileen kirol-maila.

– Parte hartzaileen kopurua.

tivas que tengan su domicilio social en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

d) Las Entidades Locales de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La concesión y, en su caso, el pago de las ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– No podrán concurrir a la presente convocatoria de subvenciones, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, las personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas o las que se hallen incursas en prohibición legal que la inhabilite para ello.

4.– No podrán concurrir a las ayudas reguladas en la presente Orden, durante el periodo que establezca la correspondiente sanción, aquellas personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa o penalmente por incurrir en discriminación por razón de sexo, ni las sancionadas con esta prohibición en virtud de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

*Artículo 4.*– Solicitudes.

1.– Las solicitudes para acogerse a las subvenciones establecidas en la presente Orden, se dirigirán a la Viceconsejería de Cultura, Juventud y Deportes del Departamento de Cultura y se presentarán en la Dirección de Deportes del Departamento de Cultura o en los Servicios Territoriales de Cultura que corresponda, en función del Territorio Histórico donde se ubique la entidad solicitante, bien directamente bien por cualesquiera de los medios previstos en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y de Procedimiento Administrativo Común acompañadas de la documentación siguiente:

a) Impreso de solicitud (que recoge el anexo I) que a tal efecto será facilitado por la Dirección de Deportes ya directamente, ya a través de los Servicios Territoriales de Cultura, dejando constancia documental de la autorización para instar la solicitud de la persona física que la suscriba en nombre de la Entidad Beneficiaria.

b) Memoria de la actividad.

Las subvenciones que se soliciten para financiar las actividades relativas a competiciones deportivas de carácter internacional deberán presentar una memoria explicativa sobre las siguientes cuestiones:

– El rango o categoría de la competición deportiva.

– El nivel deportivo de los participantes.

– Número de participantes.

Kirola zabaltzeko jarduerak finantzatzeko eskatzen diren diru-laguntzen kasuan, memorian alderdi hauek jaso behar dira:

– Proposatutako jarduerak kirolaren alorrean duen interesa.

– Aurkeztutako programaren kalitatea.

– Proposatutako jarduerak gizartean duen eragina.

c) Jardueraren sarrera eta gastuen aurrekontu zehatza.(II. eranskina).

d) Eskabidea egin duen erakundearen IFZren fotokopia eta zerga kontuetan betebehar guztiak ordaindută dituela egiaztatzeko agiria.

e) Hirugarrenaren altari buruzko agiri normalizatua (III. eranskina).

f) Zuzendaritza batzordearen edo dagokion gobernu organoaren osaerari buruzko egiaztagiria.

g) Eskabidea egin duen erakundeko gobernu organo eskudunak hartutako konpromisoa, proposatutako jarduera edo programa garatzerakoan eta, batez ere, iragarki eta dokumentazioan (gutunak, kartelak, liburuxkak, programak, megafonia, etab.) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko.

h) Erakunde onuradunak eskatu eta jasoko dituen edo jaso ditzakeen beste diru-laguntzak. Zein erakundek (publiko nahiz pribatuk) emango dizkion adieraziko da, baita eskaeraren egoera ere (ea ukatu zaion, ebazteke dagoen, eman zaion, eta zenbatekoa). Ez badu diru-laguntzarik eskatu, egiaztagiria aurkeztuko du programa horretarako beste diru-laguntzarik eskatu edo jaso ez duela adierazteko.

i) Kirol jarduera beste erakunde publiko zein pribaturen batekin batera lankidetzan edo hitzarmena sinatuta eginez gero, jardueraren garapenerako oinarri den hitzarmen edo kontratuaren kopia bat. Kasu honetan, diru-laguntzarik eskatu ez duen erakundeari ere eska dakioke aurreko artikuluetan ezarritako dokumentazioa.

j) Burututa dauden jarduerei dagokienez, izandako gastuak justifikatzeko, agindu honetan zehaztutako dokumentazio guztia aurkeztu beharko da.

k) Erakunde eskatzaileak ez duela zigor administratibo edo penalik laguntza publikoak lortzeko, ezta ere horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik aitortzen duen zinpeko deklarazioa (V. eranskina).

2.– Kirol Zuzendaritzak diru-laguntza emateko beharrezko iritzitako dokumentazio osagarri guztia eska dezake.

Las subvenciones que se soliciten para financiar las actividades de divulgación deportiva deberán presentar una memoria explicativa sobre las siguientes cuestiones:

– El interés deportivo de la actividad propuesta.

– La calidad del programa presentado.

– La repercusión social de la actividad propuesta.

c) Presupuesto detallado de ingresos y gastos de la actividad objeto de la subvención (anexo II).

d) Fotocopia del NIF de la entidad solicitante y certificado de hallarse al corriente en el pago de las obligaciones tributarias.

e) Documento normalizado de alta de tercero (anexo III).

f) Certificación de la composición de la junta directiva o del correspondiente órgano de gobierno.

g) Compromiso adquirido por el órgano de gobierno competente de la entidad solicitante de utilizar las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca en el desarrollo de la actividad o programa propuesto en lo concerniente a publicidad y documentación (correspondencia, carteles, folletos, programas, megafonía, etc.).

h) Relación de cualesquiera otras ayudas solicitadas ó que se estime percibir por la entidad solicitante o cualquier otra interviniente, con destino a la actividad para la que se solicita la subvención. Deberá de hacerse mención de la entidad, pública o privada, a la que se haya solicitado, así como estado de la misma, (denegada, pendiente de resolución, concedida e importe). Caso contrario, documento declarativo de no haber solicitado ó percibido ninguna otra ayuda para los programas presentados a subvención.

i) En los casos de desarrollo de la actividad mediante colaboración o convenio con otras entidades públicas o privadas, copia del convenio o contrato que respalde el referido desarrollo. En este caso podrá requerirse, respecto a la entidad organizadora no solicitante, la documentación que en los apartados precedentes se establecen.

j) Para actividades ya realizadas deberá aportarse cuanta documentación se establece en la presente Orden dirigida a justificar los gastos realizados.

k) Declaración responsable de que la entidad solicitante no se encuentra sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni se halla incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello (anexo V).

2.– La Dirección de Deportes podrá exigir cuanta documentación complementaria estime necesaria para la concesión de la subvención.

3.– Abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan (1992ko otsailaren 7ko EHAA) adierazitakoa betez, ehun eta laurogei mila hirurehun eta hiru euro eta hirurogeita hiru zentimotik (180.303,63) gorako diru-laguntzak emateko beharrezkoa izango da, dekretu horretan ezarritako baldintzei jarraituz, benetako bermea eratzea.

4.– Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Kulturako lurralde zerbitzuek eta Kultura Saileko Kirol Zuzendaritzak agindu honetan araututako diru-laguntzez behar duten informazio guztia jarriko dute diru-laguntza eskabideren bat egin duten entitateen esku.

*5. artikulua.*– Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, honako agindu honek eragina duen egunetik zenbatzen hasita.

*6. artikulua.*– Eskabideetako akatsak zuzentzea.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Kirol Zuzendaritzak, agindu honen 4. artikuluan ezarritakoari jarraituz aurkeztutako eskabidea eta gainerako dokumentazioa aztertuta, aurkeztutako dokumentazioa osatu gabea dela edo akatsak dituela ikusiz gero, eskabidea egin duen entitateari horren berri emango dio. Jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik hasita, hamar egun balioduneko epea emango da dokumentazioa osatzeko edo akatsak zuzentzeko eta, epe hori bukatuta, eskatutako dokumentazioa ez bada era egokian zuzentzen, eskabidea ez onartutzat joko da, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuaren ebazpen baten bitartez.

*7. artikulua.*– Hautaketarako eta diru-kopuruak zehazteko irizpideak.

Diru-laguntzak emateko eta diru-kopuruak zehazteko, ondoko paragrafoetan ezarritako prozedura erabiliko da:

1.– Diru-laguntzaren gai diren programa edo jarduerak ebaluatzeko, laguntza-lerro bakoitzean, honako osagarri hauek zein neurritan betetzen diren kontuan hartuko da:

1.1.– Nazioarteko kirol lehiaketen lerroan.

a) Kirol lehiaketaren maila edo kategoria. Puntuazioaren % 40.

b) Parte-hartzaileen kirol maila. Puntuazioaren % 40.

c) Parte-hartzaileen kopurua. Puntuazioaren % 20.

1.2.– Kirola zabaltzeko jardueren lerroa.

a) Proposatutako kirol jardueraren interesa. Puntuazioaren % 40.

b) Aurkeztutako programaren kalitatea. Puntuazioaren % 30.

3.– En cumplimiento de lo previsto en el Decreto 698/1991, 17 de diciembre (BOPV 7 de febrero de 1992), el otorgamiento de subvenciones superiores a 180.303,63 euros exigirá la constitución de una garantía real en las condiciones prevista en el referido Decreto.

4.– Los Servicios Territoriales de Cultura de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa y la Dirección de Deportes del Departamento de Cultura facilitarán cuanta información sobre las subvenciones reguladas en la presente Orden precisen las entidades solicitantes.

*Artículo 5.*– Plazo de presentación de solicitudes.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día que surta efectos la presente Orden.

*Artículo 6.*– Subsanación de defectos de las solicitudes.

En el supuesto que, analizada por la Dirección de Deportes del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, la solicitud y demás documentación requerida de conformidad a lo previsto en el artículo 4 de la presente Orden, se observara la existencia de defectos o la documentación fuera incompleta, se pondrá en conocimiento de la entidad solicitante dicha circunstancia, otorgándose un plazo de diez días hábiles, a contar desde el siguiente al de recepción de la notificación correspondiente, para su subsanación, transcurrido el cual, sin haberse procedido a la referida subsanación, se le tendrá por desistido, mediante resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

*Artículo 7.*– Criterios de valoración y proceso de cuantificación.

Para la concesión de las subvenciones y determinación de la cuantía de las mismas, se estará a lo previsto en los apartados siguientes:

1.– Los programas o actividades para los que se hubiera solicitado ayuda serán evaluados, en cada línea de ayudas, atendiendo a la concurrencia en el programa o actividad propuesto de las siguientes condiciones:

1.1.– En la línea correspondiente a competiciones deportivas de carácter internacional.

a) El rango o categoría de la competición deportiva. 40% de la puntuación.

b) El nivel deportivo de los participantes. 40% de la puntuación.

c) Número de participantes. 20% de la puntuación.

1.2.– En la línea correspondiente a actividades de divulgación deportiva.

a) El interés deportivo de la actividad propuesta. 40% de la puntuación.

b) La calidad del programa presentado. 30% de la puntuación.

c) Proposatutako jarduerak gizartean duen eragina. Puntuazioaren % 30.

2.– Diru-laguntzaren zenbatekoa zehazteko, banaketa proportzionala erabiliko da laguntza lerro bakoitzean. Alegia, agindu honetako 2. artikuluan izendatutako diru-kopurua proportzionalki banatuko da balorazio-fasean eskabideek, aurreko atalean adierazi diren irizpideak aplikatuta, lortu duten puntuazioari jarraituz, betiere gehienez ezarrita dagoen zenbatekoa errespetatuta, edo, eskatutakoa txikiagoa bada, eskatutako kopurua.

3.– Nazioarteko kirol lehiaketen kasuan, jarduera bakoitzerako diru-laguntza ez da 110.000 (ehun eta hamar mila) eurotik gorakoa izango. Kirola zabaltzeko jardueren kasuan, berriz, gehieneko muga 18.000 (hamazortzi mila) eurokoa izango da.

*8. artikulua.*– Diru-laguntzen bateragarritasuna.

Agindu honetan adierazitako diru-laguntzak bateragarriak izango dira entitate publiko zein pribatuek helburu berberaz emandako beste laguntza batzuekin, betiere guztira jasotako diru-kopuruak aurrekontu osoa gainditzen ez badu. Horrela gertatuz gero, diru-laguntza murriztu egingo da, aurkeztutako aurrekontuari egokitu arte.

*9. artikulua.*– Ebazpena.

1.– Eskabidea eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, Batzorde Kalifikatzaileak modalitate bakoitzari dagokion ebazpen proposamen arrazoitua egingo du laguntzak esleitzeko ezarritako irizpideen arabera, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeari igorriko dio. Hauek izango dira Batzorde Kalifikatzaileko kideak: Kirol zuzendaria, batzordearen lehendakaria izango dena, eta Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak izendatutako kirol arloko bi teknikari, bietako bat batzordearen idazkari izango delarik. Batzorde Kalifikatzailearen osaera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Balorazio Batzordeak osatzeko orduan, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, bere 3.7. artikuluan diona beteko da.

2.– Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak, egindako proposamenaren aurrean, ebazpena emango du eta, bertan, emandako diru-laguntzen zenbatekoak finkatuko ditu.

3.– Eskabideak aurkezteko epea bukatu eta, gehienez ere, hiru hilabeteko epean, eskabideen ebazpenaren jakinarazpena egingo da. Epe hori bukatu eta ebazpena jakinarazi ez bada, eskatutako diru-laguntza ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, lege horrek berak Administrazioari berariaz ebazpena har dezan agindutakoaren aurka jo gabe. Edonola ere, agindu honen babesean egindako eskabideen gaineko ebazpenak emateko epea ezingo da sei hilabetetik gorakoa izan.

c) La repercusión social de la actividad propuesta. 30% de la puntuación.

2.– La determinación de la cuantía de las ayudas se efectuará, en cada línea convocada, por el sistema de reparto proporcional, en virtud del cual la dotación económica asignada en el artículo 2 de la presente Orden, se distribuirá en proporción a la respectiva puntuación que, en aplicación de los criterios contemplados en el apartado anterior, hubieran obtenido las solicitudes en la fase de valoración, respetando la cuantía máxima de ayuda establecida o en su caso, si fuera menor, el montante solicitado.

3.– La subvención por actividad no podrá superar la cantidad de 110.000 (ciento diez mil) euros, tratándose de competiciones deportivas de carácter internacional, ni la de 18.000 (dieciocho mil) euros, en el caso de actividades de divulgación deportiva.

*Artículo 8.*– Compatibilidad de las ayudas.

La percepción de las subvenciones establecidas en la presente Orden es compatible con cualquier otra que pudiera otorgar cualquier entidad pública o privada a la misma actividad, sin que en ningún caso, pueda existir sobrefinanciación, procediendo en tal caso, la reducción de la subvención a conceder hasta el equilibrio con el presupuesto presentado.

*Artículo 9.*– Resolución.

1.– Tras el examen de las solicitudes y documentación presentadas, una Junta Calificadora, integrada por el Director de Deportes que actuará como Presidente de la misma, y dos técnicos de dicha área designados por el Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes uno de los cuales actuará como secretario, emitirá, para cada modalidad de ayudas convocadas, propuesta de resolución motivada, en base a los criterios de adjudicación establecidos, que elevará al Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes. La composición de la Junta Calificadora se hará pública en el Boletín Oficial del País Vasco. Al momento de formar la Junta Calificadora, se cumplirá lo establecido en el capítulo 3.7 de la Ley de 18 de febrero 4/2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, a la vista de las propuestas formuladas, resolverá las convocatorias determinando, para las concedidas, el importe de las ayudas.

3.– El plazo máximo para la notificación de la resolución de las solicitudes será de tres meses, a contar desde el día de finalización del plazo de presentación de solicitudes. Transcurrido el plazo máximo sin que se haya notificado la resolución, ésta se podrá considerar como denegada, a los efectos previstos en el artículo 44 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sin perjuicio de la obligación que dicha ley impone a la Administración de resolver expresamente. En ningún caso, el plazo máximo para resolver las solicitudes presentadas al amparo de esta Orden podrá exceder de seis meses.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, agindu honen 6. artikuluan aurreikusitakoa aplikatzen denean, ebazpena emateko epea eten egingo da delako izapideak behar duen denboran, jakinarazpena jaso eta erantzuteko epearen arabera.

4.– Interesdunei hartutako ebazpenaren berri emango zaie banan-banan eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da denek jakin dezaten.

*10. artikulua.–* Ordainketa.

Diru-laguntzaren ordainketa bi zatitan egingo da: lehen zatian, diru-laguntzaren kopurutik ehuneko hirurogeita hamar ordainduko da, interesdunak diru-laguntza onartu duen edo onartu duela ulertzen den datatik aurrera zenbatzen hasita bi hilabeteren barruan; bigarrenean, gainerako kopurua ordainduko da, kirol jarduera edo egitaraua bukatu eta emandako diru-laguntzaren diru kopuru osoa behar bezala justifikatu ondoren.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, burututa dauden jardueren kasuan, diru-laguntzak ordainketa bakar batez gauzatu ahal izango dira, bi hilabeteko epean, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak ebazpena ematen duenetik hasita, betiere eskabidearekin batera jardueraren aurrekontua burutu dela erakusten duen dokumentazioa aurkeztu eta agindu honen 13. artikuluan adierazitako moduan justifikatu ondoren.

*11. artikulua.–* Diru-laguntza jasotzen dutenen betebeharrak.

Diru-laguntzaren onuradunak nahitaez bete beharko du Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 50.2 artikuluan erregulatutako obligazioen erregimena eta, zehazki, betebehar hauek:

a) Diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza eman zaiola jakinarazten duen komunikazioa jaso eta handik hamabost egun baliodunеko epean onuradunak ez badio idatziz eta espresuki uko egiten, diru-laguntza onartzen duela ulertuko da.

b) Diru-laguntza aurkeztutako aurrekontuan zehaztutako gastuak ordaintzeko erabiltzea, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordeak diru-laguntza emateko hartutako erabakiaren arabera.

c) Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzei buruzko informazio guztia ematea, euren zereginak burutzeko hala eskatuz gero.

No obstante lo dispuesto en el párrafo precedente, cuando fuere de aplicación lo previsto en el artículo 6 de la presente Orden, el plazo para resolver se suspenderá por el tiempo que aquel trámite requiera, en función de la recepción de la notificación y del plazo para su contestación.

4.– La resolución será notificada individualmente a todos los interesados y, a efectos de general conocimiento, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco.

*Artículo 10.–* Pago.

El abono de la subvención se efectuará en dos pagos, el primero de un setenta por ciento de la cantidad subvencionada, dentro de los dos meses desde la fecha en la que el interesado acepta la subvención o desde que ésta se entiende aceptada; el segundo por la cantidad restante, una vez que concluida la actividad o programa deportivo justifiquen de manera conforme el importe total de la subvención concedida.

Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior se podrá abonar la totalidad de la subvención a las actividades ya realizadas mediante un único pago, en el plazo de dos meses, tras la resolución del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes citada en el artículo anterior, siempre y cuando en la solicitud se acompañe la documentación que acredite la ejecución del presupuesto de la actividad, justificándolo en los términos que prevé el artículo 13 de la presente Orden.

*Artículo 11.–* Obligaciones del beneficiario.

Los beneficiarios de las subvenciones reguladas en la presente Orden deberán cumplir en todo caso con el régimen de obligaciones regulado en el artículo 50.2 del Decreto Legislativo 1/1997, de once de noviembre, por el que se aprueba el Texto refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, y en concreto deberán cumplir en todo caso las siguientes:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días hábiles tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la concesión de la subvención las entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

b) La subvención deberá destinarse a sufragar los gastos contemplados en el presupuesto presentado, de acuerdo con la resolución de concesión del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes.

c) Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a esta convocatoria.

d) Kirol Zuzendaritzari egitaraua nola gauzatzen ari den jakiteko eskatzen duen informazio guztia ematea.

Jarduera burutzen den bitartean, agerian jarri beharko da Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dela eta, horretarako, Kultura Sailak berak emango dituen ikurrak erabiliko dira.

e) Kirol Zuzendaritzari jarduera aurkezteko egiten diren ekitaldi publiko guztietarako deitzea.

f) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoari jarraituz, hizkera sexistarik ez erabiltzea, eta gizonen eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez egitea.

*12. artikulua.–* Egitaraua kudeatzeko organo eskuduna.

Kirol Zuzendaritza da agindu honen bidez erregulatutako diru-laguntzen egitaraua kudeatzeko organo eskuduna.

*13. artikulua.–* Diru-laguntzaren justifikazioa.

